

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera app-a garatzea, eguneratua mantentzea eta honen marketing-a egitea dira. Bada, beste enpresa batzuk azpikontrataturik funtzionatzen du gure app-ak, izan ere, gasolindegirik horiek dira gasoleoa banatzen dituztenak, eta ordainean mozkinen % bat emango diegu. Gure programaren barruan dauden enpresen artean, beste konkratu mota batekin baliatuz, haien kamioiak (edo motorrak gasoleo gutxi behar bada) erabiliko genituzke gasoleoa banatzeko, Repsol gasolindegia kasu.

Horretaz gain, gasolindegietan panel eta iragarki batzuk ezartzea ezinbestekoa da gure enpresarentzat, app-aren ospea eta arrakasta bermatzeko. Bestalde, gure webgunean hileroko inkesta eta galdetegi batzuk esekiko ditugu, bezeroen iritzia eta *feedback-a* jasotzeko, eta honekin, app-a hobetzeko.